

Noqua!!

H A M A B O S K A R I A

2002ko martxoaren 22a VII.urtea

Usurbil, 132. zenbakia



**Jon Harreguy,
artzai izan nahi duen gaztea**

USURBI L

GIDARI-ESKOLA



%20ko deskontua matrikulan!

MATRIKULA ZAITEZ!

Kale nagusia, 5

Telf: 943 36 27 93 - 651 70 37 71

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8


**GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8**

GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUA.
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT. ALTURA BEREZIAK.
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN. KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN

**SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK
SARRERAK: 500.000 pezetarik. HILEKOAK: 15.000 pzt.**

MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua



UDALBILTZA

HEMEN DA EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORMENA

Mundu zabalean herri askeek egiten duten bezala, euskaldunok ere gure naziotasuna aitortu nahi dugu.

Herri guztiek dute erabakiak askatasunez hartzeko eskubidea eta beren egitura politikoa eta beren ekonomia, gizartea eta kultura askatasunez garatzeko. Gizaki guztiek naziotasuna izateko eskubidea dute.

Inori ezin zaio naziotasuna ukatu edo naziotasuna aldatzeko eskubidea kendu. Euskal herritarrek garen heinean naturaltasun guztiarekin garena aitortu nahi dugu munduaren aurrean.

Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarrak - UDALBILTZAK - Batzar Orokorrean Euskal Herriko Naziotasun Aitormena bideratzeko konpromisoa hartu zuen.

Herritarrek beren naziotasuna aitortu dezaten, Udalbiltzak Euskal Herriko Naziotasunaren Aitormena egiteko inprimakiak Bai Euskal Herriari taldearen esku jarri ditu jadanik.

Bai Euskal Herriari Taldeak LARUNBATERO GOIZEKO 11:00etatik 13:00era UDAL PLENO ARETOAN EGONGO DA EDOZEIN ZALANTZA IERRITARREI ARGITZEKO.
KARNETA EGITEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:


Errolda agiria, 3 argazki eta ordain agiria

HEMEN DA

EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORMENA



Txerrimunik ordainetan



Zorionak **aitona Miguell**

Martxoaren 23an beteko dituzu urteak. Muxu haundi bat etxekoan partez eta batez ere zure hiru biloben partez. Ainhoa, Jon eta Andoni.



Zorionak **Joseba**

Martxoaren 19an urteak egin zituen Urdaigako gure kronistak. Urte askotarako eta zorte on profesionalean hasi duzun ibilbidean!

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri beharrekoa, testua eta argazkia.

Hurrengo alea: Apirilak 5.

Ekartzeko azken eguna: martxoak 27.

Hildakoak

Maria Martinez de Ilarduya

2002-III-3

Kalezar

Jaiotzak

Alaitz Olasagasti Arin

2002-III-5

Aginaga

Akatsak zuzenduz

Aurreko aldizkarian, Udalbiltzaren iragarkia akats batekin agertu zen. "Inprimakiak **Udalaren** esku jarri ditu..." beharrean "...inprimakiak **Bai Euskal Herriari** taldearen esku jarri ditu..." agertu behar zuen. Dagoeneko akats hori zuzenduta dago honakoan argitaratu dugun iragarkian.

Bai, esan??

• Udala	37 19 51
• Udaltzaingoa	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak	37 01 48
• Anbulategia	36 20 13
• Udarregi ikastola	36 12 16
• Udarregi (Kalezar)	36 45 00
• Agerialde ikastetxea	36 38 95
• Oiarde kiroldegia	37 24 98
• Zumarte	37 15 94
• Etumeta	37 20 01
• Taxi geltokia	36 21 78
• D.Y.A.	46 46 22
• Ertzaintza	112
• Suhiltzaileak	112
• Larrialdiak	112
• Anbulantziak	112
• Posta Kutxa	36 28 49
• Gure Pakea	37 32 28
• Gure Elkartea	37 17 51
• Arrate egoitza	36 63 40
• Eusko Tren	47 09 76
• Noaua! aldizkaria	36 03 21
• Bake epaitegia	37 23 36
• Oa farmazia	36 12 17
• Iturralde farmazia	36 33 95
• Zubietako Herri Batzarra	37 20 77
• Argindarra (Iberduero)	47 09 76

Apirila

Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostia.	Larun.	Igand.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

● Hurrengo alea

Udaltzaingoa ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara

943-361112

Noaua! aldizkaria
Bordaberri, 3
Usurbil
noaua.k.e@euskalnet.net

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuarte badabilkizu edo eta herriko zerbaitetaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizuegu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkarrearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noa! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noa.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noa>

Kazetarien koordinatzailea

Imanol Ubeda

Kazetariak

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta
Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustín Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbietta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Bazkidetza

Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua:

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika,
Garikoitz Udabe, Zaloa Arnaiz eta
Agurtzane Solaberrieta.

Informatika

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa

Miren Azkonobietta, Txelo Vidal eta
Kerman Errekondo

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noa! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noa! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

XXI. mendean bada artzai izan nahi duenik.

**Aste Santua... zer?**

Juan Aldasoro

Gaingan ditugu egun hauek eta bakoitzak, noski, asmo ezberdinekin itxaroko ditugu. Urte batzuk ditugunok, beste era bateko Aste Santua ezagutu genuen, gaurkoaren antza gutxi zuena, inguru giro erabat ezberdinekoa. Gaur zer-nola-koa?

Opor egunak

Gure gizartea, gizarte sekular bat dugu eta hala eratua dago, bidezkoa den bezala. Eta egun hauek bizitzen ditu, bere erara eta berari dagokionez, erlijio erreferentzirik gabe. Opor egun batzuk ditu eta mendira, elurretara, hondartzara, hara edo hona bidaia... Opor aldixoa hau, gaurkoz, Aste Santuari lotua dago, gaur edo bihar neguko edo udaberriko opor egina izan daiteke, Aste Santutik kanpo. Eta gure egunetan eta gure erara egingo genituzke gure fedeko egunak eta ospakizuna. Egun hauen alderdi bat da.

Ikuskizuna

Gauza bat gaur ikusten duguna: zenbait erlijio kutsuko ospakizunak indar hartu dutela edo hartzen ari direla: prozesioak, erromes ibilaldiak, halako ermitara edo mendira gurutz-bidea... Erniora edo gure herri askotako Ostiral Santuko gurutz bideak. Segura, Hondarribi, Azkoitiko prozesioak, Santiagorako erromes ibilaldia... Eta jende kopuru handia biltzen dutenak. "Herri Erlijiotasunaren" adierazpen izan daitezke bertan parte hartzen dutenak eta beste maila batean ikusle direnak. Hau beste alderdi bat.

Fedea hausnartu eta ospatu

Asko dira fededunak, egun hauetan, gogoeta eta otoitz giroan beren fedearen muina eta ardatza den Misterioa hausnartu, sakondu eta bereganatzen saiatzen direnak beren herriko edo joan diren lekuko ospakizunetan parte hartuz eta gutxi batzuek, monasteri eta otoitz-etxeetan igarotzen dituztenak. Eta Aste Santuak hiru momentu nagusi ditu:

1. Ostegun Santua. Jesusek eukaristia sortu eta maitasunaren agindua utzi zigun eguna. Biak elkarri lotuak, ez dago bat bestea gabe. Zerbitzu, solidaritate, beste-etara eragiten digun ospakizuna.

2. Ostiral Santua. Gurutzeak betetzen du eguna. Aitaren esaneko izan eta besteenganako zerbitzuan bizitzearen ondorioa da Jesusen Gurutzea. "Ez da maitasun handiagorik, bata bere adiskideen alde bizia ematea baino". Jainkoak ez, gizonek jarri zuten Gurutzean. Kristau fededunentzat gurutzea aberatsa da bere fede bizitarako.

3. Pazko gau-beila. "Piztu da, ez dago hemen. Zer zabilzate hilen artean bizi denaren bila". Larunbat Santu gabeko ospakizuna da urteko nagusia. Kristoren Piztuerak Kristau Elkarteak ospatzen duen ospakizuna.


Hau da gure fedea: "Jesus hil eta Aitak berpiztua". Hau da Aste Santuaren muina. Hau hausnartu, honetan sakondu otoitz giroan, izango dugu Aste Santua fedetik eta fede giroan bizi nahi dugunok.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria




Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Pako Alkorta

Pilotaz hitz egiten hasten garenean, beti Pako etortzen zaigu burura. Izan ere, nork ez du herrian Pakorekin pilotan jolastu! 30 urte egin ditu herriko pilotariekin lanean, eta duela urte batzuk Enrike Huiziri eman zion lekukoa.



Urte asko eman dituzu pilotaren munduan. Zer izan da zuretzako?

Orain dela 30 urte inguru hasi nintzen pilota munduan. Hasieran laguntzaile modura baino ez nintzen hasi. Nik sagardo fabrika batean egiten nuen lan. Aldamenean frontoi txiki bat zegoen eta bertan mutil koxkorak ikusten nituen egunero pilotan jokatzen. Haiek laguntzen hasi nintzen, eta pixkanaka-pixkanaka geroz eta lagun gehiago etorri zitzaizkidan laguntza eske. Lan gehiegi hartu nuen, ez nuen denbora soberan mutil guztiekin egoteko.

Orain dela zortzi urte, ni jubilatuta nengoen, baina ezinean ibiltzen nintzen. Orduan, Enrikeri eskatu nion laguntza, eta orduz geroztik bera dabil herriko pilotan afizioa suspertzen.

Ze entrenamendu mota egiten zenuten garai batean?

Ni, batez ere, pilotara mugatzen nintzen. Ez genuen ariketa fisikorik edo beroketarik egiten. Arratsalde batean agian 40 mutiko inguru etortzen ziren, eta denak gobernatzea oso zaila izaten zen. Orduan, batzuk atzean jartzen nituen, eta onentsuenak aurrean.

Ume guztiak batera entrenatzea zaila izango zen, ezta?

Normalean ondo portatzen ziren, izan dut kasuren bat edo beste, mutil bihurri eta ezinegonak beti izaten direlako. Baina, orain Enrike ikusten dudanean gaurko mutilak entrenatzen beti esaten dut, zailagoa dela egun dabilzan 10 mutilak entrenatzea, lehengo 50ak entrenatzea baino.

Gaur egun umeek ba al dute pilotarekiko afiziorik?

Garai batean gehiago zegoela esango nuke. Gaur egun umeek denetarik egiten dute; futbola, eskubaloia, judoa... Pilota ez da "masa kirola". Gainera, futboleko 1 eta 0 galtzen baduzu, 11 jokalarik galtzen dute eta ez zu bakarrik. Pilotan, aldiz, nahiz eta partida ona jolastu, eta, hala eta guztiz ere 22 eta 14 galdu, pilotariarentzako zama handiagoa da.

Izan dituzun haur guztietatik, norbait iritsi al da afizionatu mailara arte edo gehiago?

Normalean behin adin batera iristean, ia guztiek utzi egiten dute. Baten bat aipatzearen, Enrike Huizi oso pilotari ona da. Galarragak ere urte dezente egin zituen.

Garai batetik gaur arte zerbait aldatu al da pilotaren mundua?

Lehen pilotaren materialean ezberdintasun asko zegoen. Gipuzkoa mailan beti esaten ziguten pilota xuabearekin ibili behar genuela. Guk pilota politak izaten genituen, pilota noble samarrak eta seitikan jolasten genuen. Nafarroan, aldiz, pilota kainonak jartzen zizkiguten; mutilak zortziko koadroan galduta ibiltzen ziren. Bizkaian ere antzeko. Hemen pilota noblearekin ondo ibiltzen ziren pilotariak, han zeron geratzen ziren, tantua egin ezinean. Beraien materialarekin sartu beharra zenuen, edo bestela pilota utzi. Orain ere nahiko diferentzia badago pilotaren materialari dagokionez. Eta horrek arazoak sortzen ditu, baina pilotaria askotan ahoa itxi beharrean aurkitzen da.

RAMON BARCENILLA

. Pikor- pintura eta
gotele lanak
. Papereztatze-lanak
. Pintura-lanak oro har

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
Okindegia - Gatzategia

SANTUENEA

Agustin Esnaola



Etorkizuna nondik nora?

Aspaldiko urte hauetan gure auzoak ez du aurre-
ra pausorik egin. Udalean arau
subsidiarioen berrazterketan ari
dira eta egokia izango litzateke
auzokideok gure iritzia edo
ideiak azaltzea. Nik, auzokide
bat naizenez, nire ideiak azal-
duko ditut.

Auzoak ez dauka estalita
egoteko tokirik. Udalak frontoi-
ren ideia bota zuen, baina ber-
degune batetan geratu da.
Kokapen horretan frontoia edo
beste estalki modukoren batek
on egingo lioke auzoari. Batik
bat umeeek jolas lekua izan
dezaten eta zaintzen duena
estalita egon dadin.

Etxebizitza berririk ez da plan-
teatu azkeneko urte hauetan,

ezta aurreko arauetan ere.
Agian etorkizunean, auzoaren
azken etxeak eta Sainarrenea
baserriaren tartean etxebizitzak
planteatu daitezke. Era ezber-
dinekoak izan daitezke, bloke-
ak edo bifamiliarrak...

Urbanizazioa egin zen orain
dela urte batzuk. Auzoak txu-
kunketa behar duela iruditzen
zait, etxe tarteetan dauden
lorategiak berritu beharko
lirateke, espaloi batzuk izo-
rratuta daude, lurreko
marrak margotze berri bat
eskatzen du, azpiko bidea-
ren ertzean banku batzuk
jartzea ona izango litzateke,
etab...

Bukatzeko, ibaiari trata-
mendu egokia eman

beharko litzaioke. Atallu gara-
tzen ari den moduan, auzoa
kaltetua izaten ari da. Horrega-
tik, ibaiaren txukunketa bat egi-
tea, presaren murrizte bat,
arraien birpopulazio baten
azterketa egitea... egokia litz-
ateke.

Hauek dira auzoan egin dai-
tezken hobekuntzak. Gehiago
ere egon daitezke.



URDAIAGA

Alazne Begiristain



Errepideekin bueltaka

Orain dela bi ale ere,
Josebak hitz egin zuen
Santuneatik gora jarri dizkigu-
ten oztopoez baina nik ere hitz
egin nahi nuke honen ingu-
ruan.

Bai, izango dute beren balio-
garritasuna baina ez dakit
bada, ez al dago beste modu-
rik kotxeek eta gainerantzeko-
ek frenatzeko?

Oztopo hauek txirrindularien-
tzat deserosoak izateaz gain,
bai kotxe, moto... eta gainon-
tzeko ibilgailuentzat ez dira
bat- ere erosoak. Izugarrizko
koxka puska da igaro behar
dena. Hala eta guztiz ere, orain
margotuta dago baina margo-
tu gabe egon zen astean, ez

zinen gogora-
tzen koxka
zegoenik ere
eta a zer susto-
ak hartzen ziren
koxka igarotze-
ko garaia etor-
tzen zenean.
Baina beno, zer
egingo zaio
bada dagoe-
neko?

Errepideekin
jarraituz, nik ere
eskean hasteko asmoa dut:
Zubietan errepideak konpon-
du, Aginagan frontoia egin eta
gure San Estebanen zer?
(A, beno, Urdaiaga). Auzo hau
badagoenik ere ez zaie akor-



datzen batzuri. Eta guk ere
badugu, hainbeste aldiz eskatu
ditugun farol batzuen beharra.
Laster, ezbeharren bat gertatu-
ko da errepidean eta orduan
izango dira komeriak!

KALEZAR

Joseba Pellejero



Negu udaberri noraezean!

Kaixo irakurle!

Hementxe nago zer idatzi ez dakidala, baina, lasai zerbait aterako da.

Egun gutxi geratzen ziren, baina, ni ere neguaren hatzaparretan erori nintzen, gripe edo sukarrarekin, beste hainbat eta hainbat pertsona bezala, hau dek marka!

Negua bihurria joan zaigu: hasieran izugarrizko hotzak izan genituen; gero, berriz, hegohaize zakarra eta, bukaeran, bazter guztietan entzuten genituen lehorten kon-

tuak; baina, azkenean ixialarazteko adina euri egin du (patata ereiteko tarte egokia bilatzen ez zegoen erreza).

Orain, berriz, udaberriari



eman beharko diogu paso. Tenporak nahiko udaberri giroarekin geratu ziren, gero ikusi beharko zer egiten duen.

Urtaro berriarekin batera, kukua datorkigu gurera, esaerak hala dio: "martxo amabirjinetan kuku, San Pedrotan mutu". Lehen poltsikoan pezeta eramatea komenigarria izaten zen, oraingo txanpon berria ezagutuko al du kukuak?

Beno, berehalaxe datozen jai berezi hauek ondo igaro eta beste bat arte!

ATXEGALDE

Maria Jesus Urbiet



Jose deunaren eguna jai

Aspaldiko partez aurtan Jose deunaren eguna jai egiteko moduan gara. Garai batean egun hau oso ospetsua izaten zen.

Baina, aspaldidanik egun hau tarteka ospatu izan dugu. Aurtan, gainera, jende askok zubia izango du eta ondo etorriko zaio atsedena hartzeko, edota elurretara joateko, gaur egun oso modan jarri baitzaigu. Beste batzuek, aldiz, Valentzia aldera joatera animatuko dira, egun hauetan failak ospatzen baitituzte bertan.

Aste Santua ere gainean dugu, eta ordurako ere jendea prestaketa lanetan ariko da buru-belarri, ahalik eta ondoen pasatzeko asmoarekin.

Herrian geratzen garenok, berriz, zaindari lanak egin beharko ditugu, hemengo txokoak zaintzeko.

Bestalde, beste gai bati helduz, zabor kontuak aipatu nahi ditut. Zaborra ordu egokian ateratzen ez badugu, auzoan gauero bueltaka ibiltzen diren zakur eta katuek zabor poltsak irekitzen dituzte eta kalean zabaltzen dituzte.

Gainera, bada ere jai bezperetan zaborra ateratzen duen auzotarrik, nahiz eta jakin zaborra

ezin dela atera.

Beraz, ea kontu gehiago izaten dugun gai honetan eta guztion artean auzoko kale bazterrak garbiago eta txukunago mantentzen saiatzen garen, guztion onerako.



TXOKOALDE

Imanol Goenaga



Akerra gaztetxean kontzertu ugari

Aurten ere arrantzarako garaia iristen ari zaigu, eta, dirudienez, aurtengoan arrai ugari izango dugu, arrantzaleen atseginerako. Ea zer egin ez dakiten gazte horiek horrelako afizioei eusten dieten, eta naturaren garrantziaz ohartzaren diren, baita natura zaintzeaz eta errespetatzeaz ere. Izan ere, horrela izan ezean, hemendik urte batzuetara ezingo baitu inortxok ere arrantzarako arratsalde batetaz gozatu.

Beste gai bati helduz, kronika honetaz baliatuko gara txokaldetar guztiei Akerra gaztetxea pintatu dugula jakinarazteko.

Batek baino gehiagok

"bazen garaia" esango du, eta arrazoi dute agian, baina tira! azkenean hori ere egin dute, eta hori da garrantzitsuena. Esaerak dioten bezala, "hobe berandu, inoiz egin baino". Ea horrela jende gehiago hurbiltzen den antolatzen ditugun kontzertu eta ekitaldietara,



Usurbilgo gazteek gure gaztetxeari beldurra diotela baitirudi.

Itxura apaintze horretaz gain, kontzertuak antolatzen jarraitzen dugu, horren lekuko dira hilaren 2an, 15ean eta 27an antolatutako kontzertuak.

Martxoaren 2an "Sin" eta "8 motxos" taldeak izan ziren gurean; 15ean, aldiz, "Ez-bastika" eta "Gaitza".

Bi kontzertu hauek ikusteko aukera izan ez bazenute, lasai egon. Izan ere, ares-tian aipatu bezala, **martxoaren 27an**, asteazkenean, beste kontzertu bat antolatu baitugu: "**Neu**" eta "**Sutura**" taldeak. Beraz, denak gonbidatuta zaudete.

KALEBERRI

Iñaki Agirresarobe



Iruñerriako AEKren bisita

Joan den martxoaren 8, 9 eta 10ean Iruñerriako AEK euskaltegietako 35 ikaslek asteburua igaro zuten gure artean.

Euskaraz 24 orduetan aritzeko helburuarekin Udarregi Zaharreko ikasgelak zituzten eguneroko 6 orduko klaseak emateko egoitza. Garrantzitsuena beraie inguruetan egin ezin dutena, hau da euskaraz jardutea, gure herrian burutzea. Horretarako, jendarekin nolabaiteko harremana lortzea zen beraie beste egitasmoa eta egin zituzten ostiraleko eta larunbateko parrandekin hori gauzatzea

lortu zuten.

Esperientzia ona izan zutela baieztatu zuten eta bestalde, eguneroko erosketak euskaraz egite horrek beraie grina asetzeko balio garri suerta zitzaien.

Guretzat normalizat den gauza bat beraientzat ametsetan jardutea da eguneroko

bizitzan. Izan duten egonaldi ona ikusirik agian maiatz aldean beste astebukaera bat igarotzera etorriko dira, Sagar-do Eguna tarteko.



AGINAGA

Maria Angeles Arruti



Emakumeen Eguna

Hilaren 8an izan zen Emakume langilearen eguna, hori dela eta omenaldi txiki bat eskaini nahi diet **Matilderi** (sero-ra) eta **Kontxiri** (botikaria).

Martxoaren 13an larogei urte bete zituen Matildek, beraz,



zorionik beroenak. Denbora luzea egin du umeei dotrina irakasten eta eliz barrutiko lanak egiten, eta oraindik ere, hor jarraitzen du aurrera eta atzera.

Jakin izan dudanez, bere urtebetetze eguna oso ondo igaro zuen, izan ere, eliza garbitzen ibiltzen den taldeak goizean meza ederra eta ondoren bazkaria antolatu ziotelako, bertso eta opari tartean. Gogoan izateko egun horietakoa, beraz. **Urte askotarako Matilde!**

Bestetik ere, botikako Kontxita ere zoriondu

nahiko nuke. Txamutoko Lasa botikan egin omen zituen hasierako urteak. Gero, eliza ondoko farmazian aritu zen botikari lanetan, han- txe eza-gutu nuen nik; eta, azkenik, frontoi atzeko OA botikan igaro ditu bere jubilaziorarteko egunak.

Makina bat aholku eman izan dizkit Kontxik, halabeharrez, botikara sarritan joatea tokatu izan baitzait. Hala ere, tertuli atseginak igaro ditugu elkarrekin.

Zure hutsunea nabarmentzen dudala esan nahi dizut, eta bizi-modu aldaketa honetan zoriontsu izan zaitezela opa dizut. **Eskerrik asko Kontxi!**

ZUBIETA

Mikel Bengoetxea



Neguaren bukaera

Bukatzen ari zaigu negua eta horrek eragin zuzena du zubietarren bizitzetan. Bueno, irakurle horrek usteko du denongan duela eragina baina zubietarren ikuspuntutik aztertutik eragin berezia du. Izan ere, ez dakit zergatik den baino Zubietako herriak bizia berritzen du udaberria hasterakoan.

Batetik, neguan bere aurpegia



hain itxura triste, goibel eta umel agertzen duen gure plaza, eraberritu egiten da udaberria hasterakoan, izan ere, laister hasiko zaigu erreboteko eta joko garbiko denboraldia (apirilean) eta horrek aparteko dinamika ematen baitio gure plaza kuttunari.

Bestetik, udara partean hainbat ekintza antolatzen dira Zubietako herrian, hala nola, San Juan suako festa, txokoak, herriko festak etab. Dagoeneko bil-tzen hasi dira herriko gazteak festak antolatzeko, udarako ekintza nagusia izango dena prestatzeko, alegia.

Nabaritzen ditugu baita ere, asteburuetan "domingueroak" hasiak direla Zubietako abantailaz gozaten, horre-

taz konturatzeko, aski duzue iganderen batean gure herrira etortzea eta han ikusiko dituzue gure bide eta guneak, kotxez, oinezkoz eta bizikletez estaliak.

Ezin dugu geratu aipatu gabe ere, nahiz eta Noauaren beste kroniketan aipatua izan den, obren eragina gure paisai aldatetan, izan ere, hemendik denbora laburrera, zeharo ezberdina izango baita Zubietaren fisio-nomia, eta hau ez da egongo urte sasoiaren menpe.

Beraz, etorri bedi lehenbailehen udaberria, ea gure gogoia suspertzen den, izan ere, batzuetan uste dut artzen antzera, neguan lo egoten garela zubietarrok, etxe zuloan sartuta eta hori ez da batzuetan osasuntsu suertatzen bakoitzaren gorputzarentzat.



Jubenil mailako futbol taldea desagertu da jokalarri batzuen jokabide txarraren ondorioz

1. jubenil mailara igotzeko sailkapen fasea jokatzen ari baziren ere, ez dugu beste aukerarik izan: denboraldia amaitu aurretik lehiaketatik erretiratu behar izan dugu 16-18 urteko herritar gazteez osaturiko talde hau. Ez guri sudur puntan jarri zaigulako, taldeko jokalarri batzuen jarrerak eta jokabide txarrak horretara behartu gaituelako baizik.

Gazte hauek ez dute futboleko jokatzeko eman genien aukera aprobetxatu. Mailaz igotzeko sailkapen fasea jokatzeke txartela lortu izanaz harro egon gintezke, baina jokalarri batzuen portaeraren ondorioz talde honek eman duen itxura tamalgarria izan da. Txartel gorri ugari atera dizkiete, epaile bat futbol

zelaitik kanpo jo zuten, Matigoxotegi futbol zelaiko aldagela batean pintadak eta txikizioak egin zituzten, taldeko jokalarri bati 10.000 pezeta desagertu zitzaizkion (lapurtu zizkioten) entrenamendu batean...

Herriko bi gazte talde hau entrenatzeko ardura hartu ondoren, ligaxkako azken zazpi partidetatik sei irabazi eta igotzeko sailkapen fasera txartela lortu zuten. Bazurdiaren gauzak bere onera zetoze, baina ez zen horrela izan. Igoera fasea hastearekin batera, jokalarri batzuk nahi zutenean joaten ziren entrenatzera eta talde honek jokatu zuen azken partidara bospasei jokalarri bakarrik agertu ziren (gainontzeko gehienak Errea-

laren partida ikustera joan ziren). Honela ezin zitekeen jarraitu eta duela aste batzuk entrenatzaileen adostasunarekin taldea lehiaketatik erretiratzera erabaki genuen. Astero entrenatzera azaldu eta jarraia ona izan duten zazpi edo zortzi jokalarri horiek ere ezin ditugu ahaztu.

Hauen antzeko beste hamar jokalarriekin arazorik gabeko denboraldia burutzeko moduan izango ginatekeela argi dugu, baina beren taldekide izan direnen axolagabekeriari zor die denboraldia behar bezala amaitu ez izana.

**Usurbil F.T.ko
Zuzendaritza Batzordea**

"Aginagan kontuz", zeinekin?

Badut ezagun madrildar bat aurreiritzi guztien ginetik, geure Euskal Herri santu hau bertatik bertara ezagutu nahi duena. Noizean behin, ahal duen guztietan, gurera etorri eta inguruko jendea eta leku berriak ezagutu nahi izaten ditu. Pixkanaka hiztegi txiki bat ere osatu du, horretarako propio eramaten duen koadernoan: "eskerrik asko, egun on, ondo ibili, gustora nago" eta horrelakoak. Aurreko

batean Aginaga, Usurbil eta Orio ezagutzeko aukera eskaini nion, eta halaxe abiatu ginen.

Aginagan sartzean "kontuz, hemen euskaldunak gaituk" kartel handi hura ikusi eta ea zer esan nahi zuen galdetu zidan lagun madrildarrak, bere koadernoak eta boli-grafoa eskuetan zituela. Estualdi hartatik nola atera asmatu ezinik halaxe erantzun nion: "Cuidado, macho, aquí somos vascos", (esango

didazue nola adierazi bote-pronton gaituk/n horien arteko alde). Hitz ikasi berriak idatzi gabe, koaderno gorde eta berak: "eskerrak emakumea naizen, ezta? Urrun al dago Orio? Segi, segi aurrera!".

Eta isilune luze samar baten ondoren hauxe gaineratu zuen: "Benetan beharrezkoa al da jarri duten ohar hori".

**Sabin Iriondo
N.A.: 15353554 Donostia**

**BORDATXO
EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

**WITZINGEN
HERRIKO TABERNA**

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

Euskal presoak etxera!



**SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA**

10Su

Ugaldea poligonoa 36 - 2^{da}. Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

Hitzarmen berri bat sinatu dute Buruntzaldeako Udalek

Euskararen normalizazioa sustatzeko ekimenak bideratu asmoz hitzarmen bat sinatu berri dute Buruntzaldeako Udalek.

Hitzarmen hau izenpetu duten sei udalerrietako egoera sozio-linguistikoa nahiz demografikoa anitzak izanda ere, badira hizkuntz normalizazioaren ikuspegitik, denontzako lehentasunezkoak izan daitezkeen hainbat jarduera-esparru: familia eta irakaskuntza (hizkuntzaren transmisioan edo ondorengotaratzeari eragiteko), kirola (aparteko hitzarmena dugu "kirola euskaraz" egitasmoaren inguruan), aisialdia, merkataritza eta udal barneko euskara planak (hizkuntzaren erabilerari eragiteko).

Hitzarmenaren jarraipen teknikoa egitea euskarako teknika-

rien eginbeharra izango da.

Dena den, Udalek aukera izango dute egitasmo bateratu hauek, egokiago ikusiz gero, beren udalerrira egokitzeko, edota egitasmoren batean parte ez hartzeko. Kontuan hartu behar baita egoera sozio-linguistikoa, herrien tamainak eta hizkuntza normalizazioan egindako ibilbideak anitzak direla.

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek sinatu duten hitzarmen honek 2002ko ekainaren azken egunera arte iraungo du, eta epe hori urteka luzatuko da, besterik gabe, hitzarmena izenpetu duten erakundeetarikoren batek hura salatzen ez badu, gutxienez bi hilabete lehenagotik.



Martxoaren 14an sinatu zen Buruntzaldeako Hitzarmena, Andoaingo udal areto nagusian.

► Gazteentzako zentro bat eraikiko da Irisasin

Gipuzkoako Foru Aldundiak Irisasiko etxea erreformatario moduko batean bilakatu nahi du. Arazoak dituzten gazteak jasoko lituzke eraikin honek. Udalak dagoeneko eskuartean du proiektuaren zirriborroa.

► Kultur Etxe berriko proiektua ikusgai dago

Kultur Etxea berriaren prozesua aurrera doa. Proiektua ikusgai dago eta emendakinak egin daitezke oraindik. Buletinean azaldu denetik 15 eguneko epean egongo da jendaurrean. Behin epe hau amaituta, behin betiko onartua izango da.

► Udal zerbitzuak berrantolatu nahi dira

Udaletxeko zerbitzuak berrantolatu eta lanpostuen funtzioak finkatu asmoz, Udalak LKS enpresari plangintza bat egitea eskatu dio. Batetik, erregistroan iristen diren espedienteak nola jaso eta departamentu bakoitzera nola bideratu behar diren argitu beharko du LKS-k. Honekin batera, langilegoaren berrantolaketa proposamena ere eskatu zailo enpresa honi. Horretarako lanpostu bakoitzaren balorazioa egin beharko du lehenik.


LKS-k hiru hilabete t'erdiko epea du proposamena aurkezteko.

TXURRUT

TABERNA

Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel: 943 36 00 80



TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

Euskararen erabilerak gora egin duela dio SEI elkartearen kale neurketak

Euskal Soziolinguistika Institutuak Usurbilgo euskararen kale-erabilera neurtu berri du. Emaizak udaleko areto nagusian eginiko agerraldian eman ziren aditzera, martxoaren 12an hain zuzen. Lau urtez behin egiten da kale-neurketa eta orain arte erdigunea neurtu izan bada, honakoan beste bi auzotara zabaldu da azterketa-esparrua.

2001eko azaroan eta abendu-
duan egin ziren kale neurketak. Datuak eskuetan, %54,4 da Usurbilen euskarak duen kale-erabilera. SEI elkarteak argi utzi nahi du, hain zuzen, kontzeptu hau: neurketan ez dela jaso Usurbilgo biztanleen erabilera, neurketa egunetan eman den erabilera baizik.

Hiru neurtzaile ari dira lanean eta guztira 1.353 hiztunen datuak bildu dituzte, biztanleen %26a. Beraz, hiztun kopuru handia da behatu dena.

Aurreko azterketetan erdiguneko zonaldea baino ez zen aztertu. Honakoan, neurketak beste bi zonalde gehiagotan egin dira: Olarriondo-Galtzaragaina eta Santuenea. Eta egia esan, zonaldeen arteko aldea handia da (ikus aldameneko taula).

Goranzko joera erdigunean

Erdigunea aurretik neurtua izan denez, bertko erabileraren bilakaeraren berri ere badugu. Eta 1993tik hona goranzko joera eten-gabea izan da.

Adin taldeka, oster, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak; helduak, berriz, gutxien. Etorkizunari begira, itxaropentsua da gazteen artean euskara nagusi dela jakiteak.



Pleno-aretoa hurbildu zirenen ikusmina sortu zuen SEI elkartearen agerraldiak.

Datu bitxi batzuk ere eman ditu kale-neurketak: gizonezkoek euskaraz hitz egiteko joera handiagoa dutela, beste herri batzuetan gertatu ez den bezala. Halaber, kurioa da haurrekin gertatzen dena. Gaztetxoak aurrean izan ala ez, datuak oso ezberdinak baitira.

Azkenik esan, erabileraz ari garela, Usurbilen espero zitekeena baino altuagoa dela.


Hizkuntza ezagutzaren garapena nolakoa izan den ere aztertu du SEI erakundeak. Eta bilakaera positiboa da hamar urtetan ia 7 puntu igo delako euskararen ezagutza. Igoera nabarmena azken bost urteotan eman da, 4,2 puntukoa. Eta batez ere, haur eta gazteen artean igo

da kopuru hori.

SEI elkarteak, bide batez, datozen 10 urteetan espero daitekeen bilakaera ere aztertu du. Begira izeneko tresna erabiliz, 2012 urtean euskaldun kopurua %85eraino iristea aurikusten da. Eta estimazio horren arabera, erabilera %66,1eraino.

Orain lanean jarraitzeko unea da. Datuak aztertu eta lehenetsuak zehazteko garaia. Hain zuzen, SEI elkarteak eginiko estimazioak errealitate bihurtzeko.

lbilbideen arabera erabilera



TABERNA-JATETXEA



ANTAXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

Xinkildegia


Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behe,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87


JUANTXO
burdindegia
kale nagusia 10 Usurbil
37 00 08

Neurketak eman dituen datu esanguratsu batzuk


Adin taldekako erabileraren bilakaera Erdialdean



Haurren eragina erabileran



Generoaren eragina erabileran



Kaxkoan euskaldunok biltzen gara

Kaxkoa ez ezik, oraingo neurketan Olarriondo eta Santuenea ere aztertu dira. Horixe izan da neurketa honek ekarri duen berrikuntza nagusia. Eta espero zitekeen bezala, alde nabarmena dago bi auzo horien eta kaxkoaren artean. Erdal auzoetako euskararen erabilera bikoiztu egiten da kaxkoan. Bertara euskaldunak biltzen dira. Erdaldunek nekezago egiten dute kaxkoan gizar-te bizitza. Hortaz, plaza ingurua euskararen babeslekua da eta hala mantentzea beharrezkoa da. Baina aldi berean euskaldunok badugu beste auzoetan ere euskara bultzatzeko erantzukizuna, hizkuntza eremu isolatuak sortu nahi ez baditugu.

Erabileraren neurketak erakutsi digu beste kontu aipagarriak. Esate baterako, gizonezkoek emakumezkoek baino dezente gehiago hitz egiten dute euskaraz. Ez da hori normalena, herri gehientsuenetan ez baitago alde nabarmenik gizonezko eta emakumezkoen artean. Gipuzkoan neur-tutako herrietatik bakarrik hiruk dute Usurbilgo joera bera: Anoetak, Hondarribiak eta Zizurkilek. Haurren eragi-nari dagokionez, Usurbilen ere -gai-nontzeko herrietan bezala- txikitxoak presente daudenean gora egiten du euskararen erabilera.

Euskararen geroari begira, haurren erabilera altua esperantza izateko moduko emaitza da. Euskararen erabilera, ordea, ezin daiteke erabat haurren bizkar gainean utzi (alegia, haurren arteko edota hauei zuzendutako elkarriketetan). Etorkizuna ilundu egingo baita haur horiek heldu izatean euskara baztertzaren badute.

Olatz Alfuna, SEI elkarteak kidea




San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL



Igandetan ganba-ziri mundialak!



Teodora Rubio

Atxegalde

Normalean ez gara inora joaten, herria zaintzen geratzen gara, badaezpada ere. Hori ere norbaitek egin beharko du, ezta? Aurten ere ez goaz inora. Alaba hemendik gutxira ezkonduko da eta ezkontza prestatzen nahikoa lan badaukagu aurten.



Joxe Mari Etxeberria

Kaleberri

Aste Santuan ez naiz behin ere aterata, herria eta etxeko giroan geratzeko ohitura daukat. Udarako oporretan ere ez gara inora joaten, bizitza guztian bizpahiru alditan irtengo nintzen. Gazteak ateratzen dira, eta zaharroi etxean geratzea tokatzen zaigu.



Ainara De la Cruz

Kaleberri

Ez daukat Aste Santuan kanpora irteteko ohiturarik. Aurten ere ez dugu kanpora joateko planik egin. Senideekin eta lagunekin egoteko aprobetxatuko ditut jai egun hauek. Hala ere, haurrak zaintzea ere tokatu zait.



Josune Arruti
Etxealdia

Joan izan naiz kanpora egun horietan, nahiz eta gustoa hartzeko denbora gutxi izan. Saloura edota Lizarrako kanpinera joan izan gara. Baina, aurten lan egin behar dut, eta, beraz, herria zaintzen geratu beharko dugu.



Victor Fradejas

Muna Lurra

Normalean lana egitea tokatu izan zait. Hala ere, urte batzutan kanpora joateko aukera izan dut. Duela bi urte, adibidez, Andaluzian egon ginen. Aurten oporrak ditut, baina ez dut kanpora joateko planik egin. Hemen inguruan egun-pasak egingo ditugu.



Nuria Aparicio

Galtzaragaina

Opor txiki batzuk egiteko aprobetxatzen ditut egun hauek. Batzuetan Jaka aldera joan izan gara, raftin eta horrelako kirolak egitera. Beste batzuetan, aldiz, Extremadura aldera jo izan dugu. Aurten, ordea, ez goaz inora, bertan geratuko gara.

**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA



TEL. 36 61 97

N•I

Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51

Zuberoaren aldeko kanpaina bideratzeko talde bat osatu da

Udalbiltzak, udal iza-eran oinarrituriko lehenengo euskal instituzio nazionalak, iazko Aberri Egunean Zuberoaren garapena bultzatzeko konpromiso publikoa hartu zuen. Zuberotarrek landu duten "Xiberoa 2010" diagnostikoan oinarritzen da "Xiberoa Garatzen Egitasmoa". Usurbilen kanpaina hau bideratzeko lan-talde bat osatu berri da.



Kanpaina honetan 1.000.000 euro bildu nahi dira.

Zuberotarrak kezkatuta daude euren herrialdearen etorkizunarekin. Biztanle kopuruak beheranzko joera du eta lanpostu asko arrisku bizian dira. Honi guztiari aurre egiteko Udaltzako Partzuegoak "Xiberoa garatzen egitasmoa" abiarazi du. Egitasmo honek Euskal Garapen eta Kohezio Fondoaren babesa du. Baina laguntza hori ez da nahikoa izanen.

Hain zuzen horregatik, laguntzak biderkatzearen talde bat osatu da Usurbilen. Kultura mailan lehendik ere antzeko lanetan aritu direnak biltzen dira ahalegin honetan. Helburu nagusiak

bi dira: auzolangintza sustatuz Zuberoako egitasmoa bultzatzea eta ekarpen ekonomikoak bideratzea.

250 euroko 35 ekarpen egokitu zaizkio Usurbili. Diru-ekarpen hau aldi batean egin daiteke edota bost zatitan (bi hilabetez behin).

Beste era bateko ekarpenak ere onartzen dira.

Hau guztia bideratu asmoz dagoeneko lanean da taldetxo bat. Konpromiso honi behar bezala aurre egiteko plangintza bat zehaztu nahi da. Taldea irekia da eta edonork har dezake parte. Adi, beraz, datozen egunetan egingo diren deialdietara.

▶ Olio birziklatzeko aukera berria, apirilaren 3an

Ettxeko olio biltzen duen ibilgailua hilean behin hurbiltzen da guregana, lehen asteazkenean. Auzoz auzo ibili ohi da. Apirilaren 3an, beraz, berriz izango da gure artean.



▶ Teknologia berriak hurbildu zizkigun kutx@busak

Martxoaren 12an iritsi zen kutx@busa, Kutxak duen autobus ibiltaria. Besteak beste, www.begira.com hiritarren atariaren aurkezpena egin zen eta bisitariak Internet gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Posta elektronikoa eta Kutxanet zerbitzuak erabiltzeko ikastaroak eskaini ziren kutx@busean.



▶ Lasarte-Usurbil Institutuaren oharra

Lasarte-Usurbil Institutuak aditza eman duenez, 2000. urtean batxilerra egin zuten ikasleek eskura dituzte euren tituluak. Agiria eskatu zutenek lehenbailehen jasotzera pasa daitezela eskatu du institutuak.

Zazpi herrialdeetako ordezkariak bilduko dira apirilaren 21ean

Apirilaren 21ean, Euskal Herriko zazpi herrialdeen ordezkariak bilduko dira gure herrian. Herrialde hauen arteko harremana sendotu eta, era berean, elkar ezagutza sustatzeko helburuarekin antolatu da ekitaldi hau.

Anaikidetza honek Nafarroa osoa hobeto ezagutarazteko eta bazter guztietako kultur aberastasuna, nortasuna eta hizkera ezberdinen aniztasuna erakusteko balio garri izateko xedez antolatu da.

Bertaratuko diren eskualdeak honako hauek izango dira: Nafa-

rrako Erribera eta Aezkoa Erriobar; Arabako Añana; Bizkaiko Basaurialdea; Lapurdiko Urruña; Zuberoako Urdiñarbe; Behenafarroako Baigorrialea eta Gipuzkoatik Usurbil. Eskualde bakoitzak bere kultur eskaintza ekarriko du jaialdiari osotasuna eta aberastasuna eman diezaion.

Datorren zenbakian festa honen inguruko artikulua bat argitaratuko dugu eta egitarauaren berri izango duzue.

Jon Harreguy, artzai izan nahi duen gaztea

X XI. mendean artzai nahi izatea ez da ohiko aukera. Hori ez da kezka Jon Harreguyrentzat. Ikasketak baditu baina mendia eta artzai-lanak gustukoak izan ditu betidanik. Eta horretan lanean ari zela joan ginen bisitan Ernio mendiaren magalean dagoen Iturriotz baserri. Dagoeneko bi negu egin ditu bertan.

Sukaldaritza ikasketak dituzu, ezta?

Bai, berez, bai. Donostian, Ategorrietako Eskolan ikasi nuen. Hiru urteko kurtsoa egin nuen eta atera genuen. Titulua badut baina ezin eutsi sukalde zaharrean.

Praktikak egiten ere aritu zinen.

Lasarteko Txintxardin Beltzan, Donostian Nikolasan, Tuteraraino jeitsi nintzen, Arcachonera ere igo nintzen, Oiartzungo Zuberoan...

Eta artzai izateko gogoa nondik datorkizu?

Oiartzunen bazen artzai bat, hura ezagutu eta hari bisitak egiten hasi nintzen, besterik gabe. Gero, sukaldetik aparte, taberna baterako hasi nintzen nire kontutik lanean. Asteburuetan hasi ginen mendi aldera jotzen. Hasieran egunpasak egiten nituen mendian. Egunpasak, ordea, motzak egiten hasi ziren. Eta gero asteburupasak, Euskal Herriko menditan, Nafarroan eta Aralarren batez ere. Gero asteburuak hasi ziren motzak egiten, gau pare bat pasa eta etxera joan behar. Penaz etxera joan behar horrekin. Ardiak betidanik gustatu izan zaizkit. Ardiak belazeen gauza ederra da niretzat.



Aian kokatzen da Jonen bizitokia, Iturriotz baserrian hain zuzen.

Eta artzai izatea noiz erabaki zenuen?

Ez zen bapatekoa izan. Sukaldean nenbilela "kanpo libre" behar nuela ikusten nuen. "Honetan jarraitzen badiat ez nauk gustura biziko!" eta probatu egin behar nuela erabaki nuen. Alegiako artzai batena joan nintzen lehenbizi. "Hi, lanik ba al dek?" galdetu nion.

"Bai, hemen lana baziok", erantzun zidan. "Nahi baldin badek etorriko nauk", esan nion. "Eta noiz etorriko haiz" galdetu zidan artzaia. Ni berriz, "datorren aste-an edo". Berak ordea presa zuen eta "ezin al dek bihar etorri?" bota zidan. "Ez, ez, bihar ez, datorren astean etorriko nauk. Hik niri logela jarriak eta etorriko nauk".

Eta halaxe hasi nintzen.

Usurbildik joan zara Iturriotzera.

Ez al duzu kalea faltan botatzen?

Lagunak etortzen dira, maiz samar gainera. Gurasoak ere etortzen dira... Nik galdetzen diet, herria ondo al dago? "beti beazala", a bai? Orduan ez zegok joan beharrik, bertan eta kitto.

Etxean nola jaso zuten Ernio aldera joateko erabakia?

Hasieran harrituta, baina ni gustura ikusita beraiek ere gustura daude. Lagunak ere harritu ziren, "hi artzai?". Beno, orain behintzat bai zergatik ez? gero ikusiko dugu...

Haritz anaia, rockeroa; zu, artzai. Bitxia da, ezta?

Bai hala da. Gustura dabil hura ere. Niri gauza zaharrak gustatzen zaizkit, ez lanbide zaharrak bakarrik, baita traste eta etxe zaharrak, baserri zaharrak. Hor inguruan moldatu nahi bizimodua. Artzai

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

ESTETIKA ZENTROA

LOURDES LARRAÑAGA

- Depilazioak
- Aürpegiko tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tinteak
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

Irazu kalea, 12-behea
Telf: 943 36 28 87

erizketa

beharra asko dago, baina ez du inork hartu nahi.

Askoren begietan, artzai lanbidea aspaldiko kontua da.

Jendea harrituta dago. Kaleko seme bat nola hemen? Pentsatzen dute "joan bai baina laster bueltatu-ko duk". Baina oraingo ez dut aldatzeko asmorik. Ez da erraza, lotua da lanbidea, baina ez hau bakarrik. Kanean entzuten diren gauzak, taile-rran eta nola daude... Hura ez da hobia izango. Hemen erabateko lana da, baina hemen nahi duzun bezala antolatzen duzu eguna. Ofizio lotua dirudi baina askatasuna ere badu, dena ondo lotuta izanez gero, bada denbora beste gauza batzuetarako.

Orain arte beste batzuen artaldeak zaindu dituzu. Noizbait zurea osatzeko asmorik ba al duzu?

Noizbait nire kabuz hastea gustatuko litzaidake. Baina ez da erraza. Barru horretan mugimendu hori badaukat. Salto hau eman dugu eta orain beste salto bat eman nahi.

Ardi ale batzuk hartu eta aurrera. Baina ez da erraza. Egunero argia aprobetxatuz eta ogi pixka batekin aurrera ateratzea badago, ez dira gauza gehiegi behar. Argia eta ogia. Hortik aparte zer behar dugu?

Azken urteotan, ordea, gaitzak ugaritu egin dira. Hori dela eta, kontrolak ugaritu dira. Artzaiok ere sumatu al duzue?

Gaitza hauek guztiak eman baino lehen gainbeheran zegoen baserria, orain pentsa. Ze ostiko jaso duen. Ardien kasuan, albaitaria ekarri eta harakinak eraman behar dituen arkumeak ikusi behar ditu lehenbizi. Paper bat edo agiri bat sinatu behar du eramateko daudela ziurtatzeko. Bakoitzeko 500 pezeta ordaindu eta paper horiekin harakinarena eramaten dugu.

Sukaldari lanbidea ez duk faltan botatzen?

Ez baina ondo etorri zait. Biharko egunean txabolan egon behar badut niretzat otorduak egiteko moldatuko naiz.

Egun bat Jonen bizitzan



Goizeko 7:00etan jaiki ohi da Jon. Gosalduta eta ikulura abiatzen da. Kumeak egiteko daudenei lagunduz eta esnea falta dutenak elikatuz igarotzen ditu eguneko lehen orduak.

Eguraldi ona egiten duenean lehenbailehen larrera ateratzen ditu ardiak. Jonek dioenez, "ardiak gustuen kanpoan egoten dira". Ikuilura itzuli eta txukunketa lanekin hasten da. Belarra prest uzten du iluntzean ardiak bueltatzen direnerako. Egunean zehar, larrera irten ohi da artaldea larrez aldatzeko edota ardiak nola dauden ikusteko.

12:30ak edo 13:00ak aldera bazkaldu ohi du. Otorduak, ordea, Mertxe eta Juanaren lana izan ohi dira. Aukeran, babarruna eta ardi gixatua dira Jonek gustuko dituenak.

Bazkaldu ondoren siestatxo bat egiteko ohitura du Jonek. Ondoren, larrera beste bueltatxo bat eman eta ikulu edo baserri lanak egin ohi ditu. 19:30eak aldera, ardiak bildu eta ikulura ekartzen ditu. Arkumeei edanarazten lagundu eta ardiei jan pixka bat jartzen die lasai egon daitezen. 20:30ak aldera afaldu eta hortxe amaitzen da Jonen eginbeharra.

Baina egunero ez da horrela izaten. Arkumeak jaiotzeko daudenean maiz jeiki behar izaten du ardiei laguntzera.

Mertxe eta Juana Iribarren aginduetara

Hitzordua jarrita genuen Jonekin, 17:30etan Iturriotz baserrian bertan. Antza, artaldea ihesi zebilen eta ardien bila irten behar izan zuen. Mertxe eta Juana, baserriko nagusiak, atarian ziren gu iritsi ginenean.

Handik gutxira, begibistan genuen. "Jon! Zai gaudela!" Oihukatzen zion Mertxek. "Banua!, banua!", erantzun Jonek.

Izerdi batean zetorren, orduan ikusi genuen lehenengoz Jon. Garai bateko artzai baten irudia etorri zitzaigun burura: albarkak jarrita, txapela buruan zuela etxe-



ratu zen, arditxakurra aldamenean zuela.

Jonekin bildu baino lehen, Mertxerekin hizketan aritzeko tartetxo bat izan genuen. Baserria herentzian hartu zutela azaldu zigun:

"gure faltan ilobek jasoko dute baserria", gaineratu zuen Mertxek.

Eta bere hitzei erreparatuz, oso gustura daude Jonen lanarekin.

"Arditan gustura dabil mutila.

Baina lotua da artzai lana". Arditarako hartu bazuten ere, bestelako lanetan ere laguntzen diela ere argitu zigun Mertxe Iribarrek.

P A T R I

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

Iturgintza - Gasa - Berokuntza
J. Orbegoza



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL



Birziklatze arloan asko dago egiteko oraindik

Iaz sortutako hiri hondakine-tatik ia 30.000 tona berreskuratu ditu San Markoseko Mankomunitateak, Hamar herrietako biztanleek sortutako hondakinen %21,80a, hain zuzen. Biztanle bakoitzak, batez beste, 100 kilo birziklatzen lagundu du. Horiek dira Xabier Landak, Mankomunitateko lehendakariak 2001eko balantzea egiterakoan aipatu zituen datu esanguratsuenak. Usurbil, iaz bezalaxe, beira birziklatzen joera handiena duen herria izaten jarraitzen du.

Datuek, orokorrean, hobera egin dute. Izan ere, birziklatzeari esker berreskuratu den hondakin kopurua handitu egin baita.

Dendariekin harremanetan

Zentzu horretan, oso garrantzitsua izan da ontzi-hondakinak sailkatzeko Urnietan ipini den planta. Gune horretan urtean 3.000 tona tratatzeko aukera eskaintzen du.



San Markos Mankomunitateko kideek sentsibilizazio kanpainak ugalduko dituzte.

Honekin batera, San Markos Mankomunitateak birziklapena sustatzeko ekimen ezberdinak burutu ditu. Esate baterako, kartoia biltzeko 4.652 dendariri zuzendutako sentsibilizazio kanpaina. Horrek eragin zuzena izan zuen birziklatutako kartoia-
ren kopuruan, 2000. urtekoarekin alderatuz %26an igo baitzen 2001ean.

Halaber, gaikako bilketa sistemak hobetzeko, edukiontziak husteko maiztasuna aztertu zuen Mankomunitateak, eta hainbat kasutan gehitu egin da, zerbitzua hobetu asmoz.

Ekimen gehiago jarriko dira abian

Edukinontzi kopurua igotzen joan da progresiboki. Baina oraindik asko dira birziklatu daitezkeen produktuak. Laster, olioarekin egiten duten bezalaxe, arropa eta arriskutsuak diren produktuak (pintura, esate baterako) bilduko dituzte auzoz auzo, atontzen ari diren furgoneta baten bidez.

EDUKINONTZI KOPURUA

ONTZIAK	18
PAPERA	17
BEIRA	21

BILTZEKO MAIZTASUNA

ONTZIAK	
Astean behin	14
Astean bitan	4
PAPERA	
Astean behin	13
Astean bitan	4
BEIRA, 21	
Hilean behin	12
Hilean bitan	4
Maizago	5

Beira gehien birziklatzen duten herrien artean gaude

Orokorrean hartuta, 2001ean hondakin gehiago bildu zen gure herrian. Birziklaturikoari helduz, aipatzekoa da paperaren birziklatzeak behera egin duela nabarmen. Harritzekoa da, izan ere, Mankomunitateak ikastetxe eta administrazioari-
no iristeko ahalegin berezia egin baitu. Dena den, beherezko joera hori beste hainbat herritan ere gertatu da.

Ahalik ere bilketa eraginkorra egin asmoz, Mankomunitatea komertzioetarako iris-
ten da. 2001ean 50 izan ziren San Markosekin zuzenean



lanean aritu zirenak.

Bildutako beira-kopurua, ordea, dezente altuagoa da Usurbilen. Mankomunitatean, biztanleko batz bestekoa 19,11 kg-koa bada, gure herrian 23,67 kg-koa da. Txalotzeko modukoa datua.

USURBILGO DATUAK

HONDAKINAK	2000. urtea	2001. urtea
HONDAKINAK	1.986.540 kg	2.120.710 kg
PAPERA	124.220 kg	122.421 kg
BEIRA	119.549 kg	125.044 kg
ONTZIAK	28.157 kg	34.010 kg

DATUAK BIZTANLEKO

HONDAKINAK	2000. urtea	2001. urtea
PAPERA	27,39 kg	23,18 kg
BEIRA	22,63 kg	23,67 kg
ONTZIAK	6,44 kg	5,33 kg

Kopari aurre egiteko ilusioz dira Usurbilgo futbol taldeko neskak

Usurbil FT taldeko neskak kopan murgilduta daude buru-belarri. Ligan seigarren amaitu ondoren, Emakumezkoen Kopan lan txukuna egiteko gogoz dira Imanol Bereziartuak entrenatzen dituen futbolariak. Ilusioa behintzat ez zaie falta. Kanporaketak maiatzaren 5ean amaituko dira eta taldeak lan ona egiten badu finalerdietan izango dira maiatzaren 26an.



Ligan seigarren amaitu ondoren, orain Kopan lan ona egiteko gogoz dira Usurbil FT-ko jokalaria.

Ligan egin beharrekoak egin ditu senior mailako neska talde honek. Igoera fasean sartzea zaila izaten da soilik lehen biak sailkatzen direlako. Imanol Bereziartua entrenatzailea pozik dago egindako lanarekin. Dena den, aurrerago geratzeko maila badiela uste du Imanolek.

Liga alde batera utzita, Kopan lan polita egiteko ilusioz dira taldeko kide guztiak. Dena den, txapelketa ez da erraza izango

tartean maila handiko taldeak direlako, Lasarte-Oriako Ostadar esate baterako.

Mutilen futbolak duen oihartzuna ez badu ere, Imanol Bereziartua gustura dago eskuartean duen taldearekin. Ondo pasatzea da helburu nagusia eta gustura dago taldekideen artean sortu den giroarekin.

Ea zorte pixka batekin Kopan lan polita osatzeko aukera duen Usurbil FT senior taldeak.

KOPAKO EGUTEGIA

Martxoak 24

Amaikak Bat FT-Usurbil FT, Errotazar zelaian.

Apirilak 14

Usurbil FT, atsedena

Apirilak 21

Zarautz KE-Usurbil FT
Asti-Txiki zelaian.

Apirilak 28

Usurbil FT-Alde Zaharra KE
Harane zelaian.

Maiatzak 5

Bergara KE-Usurbil FT
Ipintza zelaian.

Maiatzak 19

Usurbil FT-Antoniano KE
Harane zelaian.

Maiatzak 26

Finalerdiak

Ekainak 2

Finala

Giro ederrean egin zen lagun arteko triatloi apostua

Martxoaren 10a egun berezia zen Peio Sasiain eta bere lagunentzat. Aspaldiko apostua edo pikeari aurre egiteko eguna hain zuzen. Triatloian aritu ohi da Peio. Oker ez bagaude, laster Tenerifeko Triatloian hartuko du parte.

Apostua hiru lagunentzat zuen. Peiok triatloiko hiru frogak egin behar zituen. Hurrengoak, ordea, bakarrik: Patxi Pagola igeriketan, Juanjo Lertxundi bizikletan eta Koldo Lertxundi korrika. Igeriketan aurre hartu zuen Peiok, baina korrika zein bizikletan



Irudian, apostuan parte hartu zuten parte hartzaileak.

ezin izan zion abantailari eutsi.

Lagun asko izan ziren frogazuzenean jarraitu zutenak eta giroa pil-pilean izan zen.

Futbol entrenatzaile ikastaroa antolatu da Buruntzaldean


Buruntzaldeko udal kirol eta Euskara zerbitzuek futbol entrenatzaile izateko ikastaro bat antolatu dute, Gipuzkoako Futbol Federazioarekin elkarlanean.

Ikastaroa egin eta gainditzen dutenek oinarritzko kirol-titulazioa bereganatuko dute. Irakasle guztiak euskaldunak izango dira eta baita banatuko den ikas-materiala ere.

Apirilaren 3an hasi eta 20an amaituko da 30 orduko ikastaro hau. Buruntzaldeko edozein kiroldegitan egin daiteke izen-ematea. Plaza mugatuak direnez, izena eman duten lehenak aukeratu dira lehenbizi. Prezioa, 24 euro.



**Joxe Luis Elexpe
Aginaga**



☐ **Artisaua.**

Artisauak sarean murgilduta

Argi dago garai bateko artisauen erreminta bakarra bere lanak ekoizteko eskuak zirela. Bere herrian oso ezagunak ziren eguneroko bizitzan beharrezkoak ziren etxeko tresnak egiten zituztelako, zura, keramika, saskigintza eta abar luze bat jorratuz.

Gaur egun aldiz, esan beharra dago gauzak erabat aldatzen hasiak direla Internet gure auke-rara ailegatu denetik. Zer esanik ez dago artisau gazteek beraien lanak ezagutarazteko eta dago-kion informazioa lortzeko sareak eskaintzen dituen bitartekoaz baliatzen direla. Anekdotan moduan, gure geografian zehar ospatzen diren azoka handietan (Ordizia, Orereta, Getxo, Tolosa...) beti egon ohi da web orri bat bertaratzen diren artisau eta lanen berri ematen dutenak.

Halako batean, Ordiziako Artisautza azokan nengoelarik, adinez nagusia zen artisau batekin hitz egiteko aukera izan nuen eta hantxe ikusi nuen zein harrigarria suertatzen zaien oraindik ere pertsona batzuei ordenagai-luak eskaintzen dituen aukerez jabetzea. Ahoa bete hortz geratu zen pertsona hau sareaz baliatuz bere lanak mundu guztian ikus zitezkeela azaldu nionean. Azkenean, armiarma sarearen korapiloa

ulertu zuelakoan nago.

Zer esan nahi dudan honekin? Ba gaur egun, sarea ezinbestekoa bihurtu zaigula artisauoi azoka desberdinen datak jakiteko, mundutxo horretan gertatzen diren gorabeheraz informatzeko eta, azken finean, artisautzarekin lotuta dagoen edozertaz jabetzeko.

Egia esan, gure gizarte aldakor eta moderno honetan, Internet inbertsio ona iruditzen zait eta pixkanaka guztiok sarean harrapatuta bukatzeko aukerak ezin hobekak ditugula uste dut, nahiz eta oraindik ere, artisau batzuen buruetatik aukera hau pasatu ere ez den egin.

Laburbilduz, aurrerantzean ezinezkoa izango zaigu artisautzan aurrera egitea baldin eta ez badi-tugu gure eskuen trebezia eta Internetek eskaintzen dizkigun aukerak lotzen.

Azken finean, argi dago artisauen erreminta garrantzitsuenetariko bat Internet dela.



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitzearra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Lehiaketa



Nola du izena agerian azaltzen den baserriak?

Asmatzaileen artean auzoetako
posterrak eta Noaia!ko bi
kamiseta zozketatuko ditugu

130. aleko erantzuna



Aurreko zenbakian
honako hau galdetu
genuen:

Noiz inauguratu zen
Usurbilgo udaletxe berria?
Erantzun egokia:
1990eko urtarrilaren 27an

Irabazlea

Nagore Segurola

Saria

“Zubieta mila urteko
herria” liburua

Erremedioen txokoa

Berbena-belarrez egindako xarabea

Osagaiak:

- 800 gr. azukre
- 1 lit. ardo txuri normala
- Usainik gabeko 100 gr. berbena-belar. Belar-
dendan saltzen da, poltsa bakoitza 40gramokoa
da. Bi poltsakin nahikoa da.

Osagai guztiak eltze batean bota eta irakiten
hasien denean, sua jaitsi. Bitrozeramikan eginez
gero, 3 ordu laurden nahikoak ditu. Eztia bezala
geratzen denean, iragazkitik pasa eta hozten utzi.
Pote batean sartu, edozein tokitan gorde daiteke.

✗ Zertarako balio du erremedio honek? Birikiak
garbitzeko, mukiak, flemak... botatzeko.

Bi pote neurri daude; bata, handia helduentza-
ko, eta bestea, txikia haurrentzako.

✗ Helduek egunean bi goilarakada hartu behar
dituzte; bat, baraurik hartu behar da eta, bestea,
oherakoan. Gorakoa ematen badu, esnearekin
nahastuta hartu daiteke. Potea hasi eta bukatu
egin behar da. Normala da pote erdia hartu eta
gero, mukiak eta flemak askatzen hastea, bai aho-
tik edota pixa edo kakatik. Orduan, botika eragina
egiten ari den seinale da. Beraz, bi hartu orde, z,
goilarakada bat hartzearekin nahikoa da.
Garrantzitsua da baraurik hartzea.

✗ Hurrek, aldiz,
egunean behin hartu
behar dute; goilara-
kada txiki bat goize-
an eta baraurik. Hau-
rrek ere pote osoa
hartu behar dute,
baina neurria ere txi-
kiagoa da. Ez du kal-
terik sortzen.



A genda

MARTXOAK 22 ostirala

● Beñat Iriondo lasartearraren fidantzari aurre egiteko kontzertua Askatasuna Plazan. Folkcore, Hira, 4 Itzal eta Kaotiko.

MARTXOAK 25 astelehena

● Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz enkartelada 20.00etan.

MARTXOAK 31 igandea

● Aberri Eguna. 12:00etan Udalbiltzak deituriko ekitaldia udaletxe aurrean.

APIRILAK 3 asteazkena

● Olio birziklatzen duen furgoneta auzoz auzo ibiliko da.

APIRILAK 7 igandea

● Andazpe elkarteko asanblada eta bazkaria.

GARAJEAK

🔧 Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424

🔧 Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.

🔧 Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.

🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.

🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.

🔧 Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. Inork nahi badu dei dezala telefono zenbaki honetara: 943 360 273 (Javier).

🔧 Garaje itxia salgai Etxe-zurian (herri sarreran). Tarteko oina eta ate automatikoak ditu. Prezio onean; 2.200.000 pzta. Telf: 687 40 62 09

ETXEBIZITZAK

🔧 Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara.

🔧 Alokairuan dagoen pisua edo apartamentua hartuko nuke. Telf. 943 364469

🔧 Pisu bat dut salgai. Deitu 13.00etatik 15.00etara edo 20.00etatik aurrera 943 372983 telefonora (M^a Angeles)

🔧 Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Telefono zenbakia: 943 36 02 13. Deitu iluntzean.

🔧 Usurbilen gela baten bila nabil, lo egiteko bakarrik. Lekurik baduzu dei izezadazu telefono zenbaki honetara: 653 011 842.

LAN-ESKAERAK

🔧 Neska bat eskaintzen da arratsaldetan ordu pare batez haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 366485 telefonora.

🔧 Emakume bat eskaintzen da astean hiru egunetan, goizez lau edo bost orduz lan egiteko. Interesatuak deitu 943 36 43 10.

🔧 Emakume bat eskaintzen da, goizeko 9:00etatik eta 14:00etara ostalaritza edo etxeko lanetarako, derrigorrezkoa da gizarte segurantzaz. Interesatuak deitu 943 36 43 40 telefonora.

🔧 Pertsona bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edota 3. adinako pertsonak zaintzeko. Itelf: 647 220 966.

LAN-ESKAINTZAK

🔧 Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitoreak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonotara.

BESTELAKOAK

🔧 Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L taila. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.

🔧 Edozein ohetarako balio duen erabilbi gabe dagoen trapezio bat salgai. Deitu 943 835441 telefonora (Begoña).

🔧 Abenduaren 2an, igande goiza, jertsea galdu nuen (urdira marra zuriekin). Norbaitek aurkitu badu deitu mesedez 943 37 19 75 telefonora. Gaez deitu.

🔧 Belarritako bat galdu dut, urrezkoa eta perlita bat du. Bilatzen duenak deitu dezala 943 362 088 telefono zenbakira.

🔧 Erloju bat ekarri dute Noaualra. Beraz, norbaitek bere erlojua galdu badu, etorri gure egoitzara, ea hemen daukaguna den ikustera.

🔧 Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke, 120 bajukoa. Telefonoa: 943 37 03 53.

🔧 Opel Corsa bat salgai, SS-AL. 300.000 pezetan, kuota eta transferentzia barne. 943 37 26 92.

🔧 Ford Escort Ghia TD familiarra salgai. SS-BB, CD ekipoduna. Telefonoak: 657 796 777 / 943 37 19 54.

KIROL DEIAK

FUTBOLA

Martxoak 23/24

Udarregi - Urumea

(Infantilak, G)

ESKUBALOIA

Martxoak 23/24

Usurbil KE - Barakaldo

(2. Nazionala, G)

Usurbil KE- ITE Hondarribia

(Jubenilak, G)

ARETO-FUTBOLA

Martxoak 23/24

Txotx - Adarra Ext Lei

(2. Maila B, G)

Aitzaga - Axular Lizeoa

(Jubenilak, E)

ONDARTZA-FUTBOLA

Senior mutilak, Kopa txapelketa

* G: Gizonezkoak / E: Emakumezkoak.

KIROL EMAITZAK

Martxoak 9/10

FUTBOLA

Alde Zaharra 0 - **Usurbil FT 3***

(Eskualde Maila, E)

Lasarte 2 - **Udarregi 5**

(Infantilak, G)

ESKUBALOIA

Usurbil KE 25 - Axis UPV 28

(2. Nazionala, G)

Usurbil KE 12 - Salesianos 23

(2. Nazionala, E)

Usurbil KE 26 - Egia 23

(Jubenilak, G)

ARETO-FUTBOLA


Txotx, atsedena

(2. MAILA B - I)

Aitzaga 4 - Ordizia 6

(Jubenilak, E)

*Alde Zaharrakoak ez zirenez, garaipena Usurbil FTrentzat 0-3ko emaitzarekin.



Noaua! Kultur Elkartearen Batzar Orokorra apirilaren 6an izango da

2002ko BATZAR OROKORRA

EGUNA: Apirilak 6

ORDUA: goizeko 10:30etan

LEKUA: Udaletxeko pleno aretoan

GAI ZERRENDIA:

- 1.- 2001eko memoria eta balantzea
- 2.- 2002ko egitasmoa: lantalde bakoitzaren proposamena eta onarpena
- 3.- Diru kontuak: 2001eko balantzea eta 2002ko aurrekontuaren proposamena eta onarpena
- 5.- Galdera/erantzunak
- 6.- Hamaiketakoa

Dagoeneko seigarren urtea bete du Noaua! Kultur Elkarteak. Aurtengoan, beraz, VI. Batzar Orokorra izango dugu. Bertan 2001. urteak utzi diguna ikusi eta 2002ko plang-

intza finkatu behar dugu eta, horretarako, ezinbestekoa zaigu bazkide guztien parte-hartzea. Izan ere, duela sei urte elkarrekin hasi genuen bide hau eta aurrera begira ere, bide-

lagun izan nahi zaituztegu.

Beraz, badakizue noiz eta non garen elkartzekoak. Apirilaren 6an ikusiko dugu elkar, bitartean, ondo bizi!

Ireki atea Noaua! Kultur Elkarteari eta egin zaitez bazkide!

Aspaldi bazabiltza bazkide egin nahian, edo bazkide egin nahi duen norbait ezagutzen baduzu, Aitziber laster gerturatuko da zurerak!

BAZKIDE TXARTEA

5000 PEZETA URTE OSORAKO

Noaua!!

Izena: _____
1. Abizena: _____
2. Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Tfnoa: _____
Kontu Korrontea (20 digito): _____



**Momentu honetan 525
bazkidek osatzen dute
Noaua! Kultur Elkartea**

Egin txotx! Herriko-tolare

Sagardotegietan!

Telf: 943 36 67 10- 37 06 68

Aginaga

Urte guztian egunero
irekita astelehenetan ezik

**A G I N A G A
SAGARDOTEGIA**



Araeta



Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera

Zubieta, Telf: 943 36 20 49

Egin txotx!

Vrtarrilaren 7-tik aurrera
irekita eguerdiz eta gauetz
Menua: 21€

Zubieta auzoa
tlf: 36.12.29



Sidreria

Sagardotegia

ASTIAZARAN

Zubieta, Telf; 943 36 12 29

Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

**SAIZAR
SAGARDOTEGIA**



Kalezar, Telf; 943 36 22 28

Igande gauetan eta astelehen eguerdian itxita.